

Prest!



BERBETAN: **SARAI MONTES** ERRESPEZUZ ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

ERREPORTAJEA: **DEUSTU, FRANTZIAKO ITZULIAREN LEKUKO BARKUA: 'EL VIAJE A NINGUNA PARTE' ANTZEZLANA**

3-244-245-246-247



Sustatzailea




Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Ibai Etxautz - Jaione Ayestaran		Iritzia	4
	Lassaad Krida		Gurera etorriak	5
e	erreportajea Deustu, Frantziako Itzuliaren lekuko			6
	<i>2023ko Frantziako Tourrak Bilbo izango du abiapuntu. Hala, uztailaren 1etik 3ra Euskal Herriko zenbait herri zeharkatuko du txirringularitza itzuli handiak. Bada, deustuarrok ere aukera izango dugu kirol ikuskizuna gertutik ikusteko, hasiera eguneko etapan hain zuzen.</i>			
	San Inazio Ikastetxea		Eskolak	10
	Deustua prentsan lehenengoz agertu zenekoa		Behin batean	12
	Ingurumen-kudeaketa jomugan		Artikulua	14
b	berbetan SARAI MONTESeKin			16
	<i>Sarai Montes ERRESPETUZ transexualen defentsa eta integrazioarako elkartearen lehendakaria eta sortzaileetako bat da. Elkarteak Ibarrekoldan du egoitza, eta emakume eta gizon transexualez soilik osatuta dago.</i>			
	La Riberako langileek egindako eskultura (1930)		Irudiak berbetan	21
	LITERATURA "Putza zikinak" irakurleen txokoan			24
	ANTZERKIA Pabellon 6en 'El Viaje a Ninguna Parte' antzezlan			
	NUTRIZIOA Ainhoa Maiztegi			
	KULTUR TXOTX Patri Muñoz eta Ander Anakabe Lekue			



**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Erredakzioa: Axular Arostegi, Asier Cobos, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800



Ibai Etxautz
Sanikoa

Ikusezinak

Frantziako Tourra dakarte Euskal Herrira, eta horrelako ikuskizun handiak izaten diren bakoitzean bezala, geure hiri eta auzoak zitarako apaintzeari ekin diote. Eskaparate lirainen gisan kaleak iragarki erraldoiekin, autobus margotuekin eta kartel ikusgarrieekin bete dituzte. Txoko liluragarriak nabarmendu behar dira, jaki gozoak erakutsi eta bizi-estilo garaikide eta modernoa islatu.

Pantomima horrek arrakalarik izan ez dezan, ordea, begiari min egiten dioten gauza horiek ezkutatu beharra dago; hau da, aurretik aipatutakoarekin apurtzen duten gauza horiek begi-bistatik kendu. Ez dira harritzekoak, beraz, Bilboko

alde zaharrean kale saltzaileen kontra eginiko sarekadak. Antza, txirringularitza probaren eta bertoko jauntxoan iritzi ezin dute Tourraren eta hiri aurreratuaren atrezzo izan.

Gizarteko “farolillo gorriek” mehatxuak, identifikazioak, isunak, atxiloketak eta abar sufritu behar izaten dituzte beren eguneroko makurrean. Bizimodua aurrera ateratzea ukatu ere egiten zaie beste batzuen erosotasuna aitzaki. Pelotoiko morroi izateko aukera dutenak ere baldintza kaxkarrak eta lan gehiegikeriak pairatzen dituzte. Ez al da hau guztia maillot horia lehiatzen dutenentzat prestatu?



Jaione Ayestaran
Kazetaria



Solstizioa

Zeltek oparotasun une gisa ospatzen zuten. Eguzkiaren argiaren eta bere energiaren garaipena da; eta suaren inguruan dantzan ospatzen zuten *Litha* deituriko festa. Ezin ahaztu Stonehenge, non urtero milaka lagun biltzen diren monumentu megalitikoaren erditik eguzkiaren argia agurtzeko.

Bikingoentzat epaiketak eta gatazkak konpontzeko garai egokia zen udako solstizioa; eta egiptoarrentzat, berriz, urteko lehen eguna markatzen zuen. Maiek eta aztekek udako solstizioak proiektaturiko itzalen arabera eraiki zituzten euren tenpluak.

Urtean behin eguzkia Lurraren zeruan zenitera iristen da, hau da, ekiak bere posizioarik gorena hartzen du, eta horrek ipar hemisferioan dakarren ondorio ikusgarriena egunaren luzapena da.

Gurean, San Joanak dira zalantzarik gabe festarik ezagunenak. VI. mendean kristautu zen ohitura zaharra, Elizak ongi baitaki herrien antzina-antzinako kultu zaharrak bereganatzen.

Baina urteko gaurik laburrena argitzen duen suaren usainak aspalditik girotzen du euskaldunon erritua. Naturaren gurtzea eta Eguzkiaren Jai Handia.



Lassaad Krida

Jatorria: Tunisia

Bizitokia: Arangoiti

Lanbidea: Turismo gidaria



Noiz eta nola iritsi zinen Euskal Herrira?

2011an heldu nintzen nire emaztearekin batera, bera Bilbokoa baita. Ordura arte, Tunisian bizi ginen, baina Udaberri Arabiarra hasi zenean hona etortzea erabaki genuen. Hain zuzen ere, gertaera horrek gizartean izugarritzko anabasa politikoa sortu zuen; gainera, momentu horretan justu emaztea haurdun zegoen. Beraz, herrialdearen etorkizunaren inguruan sortutako ezjakintasunak bultzatuta hona etorri ginen. Hala, harrezkero Arangoitin bizi gara.

12 urte daramatzazu beraz Euskal Herrian bizitzen. Zein da euskararekin duzun harremana?

Semeen etxekolanen bitartez zeozer ikasi dut, baita telebistan edo kalean entzundakoari esker. Hala ere, ez dut hizkuntzarekin harreman handirik izan, egia esan.

Arangoitin bizi zarela aipatu duzu. Zer da zonalde honetatik gehien gustuko duzuna?

Lasaitasuna. Bilbo niretzako herri handi bat da. Izan ere, baliabide eta zerbitzu guztiak eskura daude eta ez da hiri handiak bereizten dituen larritasuna nabari. Ez zaizkit inoiz azken mota horretako hiriak gustatu. Tunisian geundela, esaterako, herrialdeko zonalde turistikoean bizi ginen arren, herri

lasai bat zen. Horregatik, harrezkero antzeko zonalde lasai bat bilatu izan dugu beti.

Nolakoa da egun Tunisiako familiarekin duzun harremana?

Maiz hitz egiten dut haiekin telefonoz. Horretaz gain, ahal dugunean bisitan joaten gara egun batzuk pasatzera. Gutxi gora behera, urtean behin bidaiatu ohi dugu bertara, udara aldera.

Zeintzuk dira bi herrialdeen artean somatu dituzun antzekotasun eta diferentziak?

Antzekotasunei dagokionez, asko dira. Toki denetan bezala, jendearen artean denetarik dago: muturrera itzuli nahi dutenak, beti hobetzen saiatzen direnak... Tunisian, hemen neurri batean agerian gertatzen ari den bezala, korrupzioa oso nabaria da.

Desberdintasunen kasuan, Bilbok bizi izan duen garapena aipatuko nuke. Alegia, momentu honetan Europa iparraldeko herrialdeekin alderatu daitekeela uste dut.

Hala ere, egoera ez da beti horrelakoa izan; 90eko hamarkadatik hona zeharo aldatu da, industrian oinarritutako ekonomia bat izate-tik, zerbitzuetan oinarrituta egotera pasa da. Izan ere, nire lanbideari esker, gida turistikoa naiz, aurretik

iraganeko Bilbo hori ere ezagutzeko aukera izan dut.

Eta kulturari edo harremantzeko erari dagokionez?

Zentzu horretan, bada zeozer atentzioa deitu didana: familiaren kontzeptua. Nire bizipenetatik abiatuta gutxienez, hemen esango nuke oraindik ere senideen arteko erlazio horri berebiziko garrantzia ematen zaiola. Beste toki batzuetan, aldiz, hein batean zaharkitutako zeozer da nire iritziz. Tunisian, familiaren garrantzi hori oso barneratuta dauka-gu baita ere.

Nola deskribatuko zenuke auzoko bizitza?

Iritsi nintzenez sorpresa nabarmena hartu nuen euskaldunek duten harremantzeko erarekin. Betidanik egotzi izan zio euskaldunari pertsona hotzaren ezaugarria; baina denbora luzez hemen bizi eta gero, ez nator bat baieztapen horrekin. Behin hemengo lagun talde batekin harremantzeko daukazunean, konturatzen zara errealitatea guztiz bestelakoa dela.

Zer da gehien faltan botatzen duzuna?

Senideak eta lagunak. Azken finean, ez da erreza gurasoak ondoan ez izatea. Bestalde, bertako janaria ere bada faltan botatzen dudana zeozer.



Espainiako Itzulia San Inaziotik pasa zen 1970eko hamarkadan.

DEUSTU, FRANTZIAKO ITZULIAREN LEKUKO

2023ko Frantziako Tourrak Bilbo izango du abiapuntu. Hala, uztailaren 1etik 3ra Euskal Herriko zenbait herri zeharkatuko ditu txirrindularitza itzuli handiak. Bada, deustuarrok ere aukera izango dugu kirol ikuskizuna gertutik ikusteko, hasiera eguneko etapan hain zuzen.

Testua: Axular Arostegi

Argazkiak: Txema Luzuriaga eta Hektor Ortega

Historikoki, euskal gizarteak berezkoa izan du bizikletarekiko zaletasuna. Egun Mikel Landa eta Orbea nabarmentzen diren esparruan, txirrindularitza maiz izan da jende andana mugitzeko gai. Izan ere, ikusi besterik ez dago urtero antolatzen diren kirol honen txapelketetan telebistan agertzen diren ikurrina eta txirrindulari zale euskaldunen kopurua.

Gaurko egunera arte txirrindularitzaren txapelketa garrantzitsuenak behin baino gehiagotan Deustutik pasa diren arren (Espainiako Itzulia eta Euskal Herriko Itzulia, esaterako), aurtun, lehen aldiz, Frantziako Tourra gure herria zeharkatzen ikusteko aukera izango dugu. Esan bezala, aurtengo edizioa San Mames futbol zelai parean hasiko da uztailaren lehendabiziko egunean, Deustuko zenbait kaletatik igarota.

Zehatzago esanda, San Mameseko futbol zelatik abiatuta, kirolariak Areatzako zubia zeharkatu eta gero, Bilboko itsasadarreko pasealekutik jarraituko dute. Behin Deustuko Unibertsitate parera iritsita, Hermanos Aguirre kaletik igoko dira, Lehendakari Aguirre eta Enekuri Etorbide-tik jarrituz. Ondoren, Enekuriko igoeraren bitartez, ia Bizkaia osoa inguratuko duen ibilbidea egingo dute.

Zuri-beltzeko bitxikeria

Frantziakoa kirol honek duen lehiaketa handienetako bat bezala hartu izan da betidanik. Lance Armstrong, Miguel Indurain, Eddy Merckx... goi mailako txirrindulariak izan dira Eliseo zelaietan bukatzen den txapelketa mitikoan euren lorrataz utzi dutenak. Zentzu horretan, deus-



JM talde zikloturistari 2020an Bilboko Udaletxean egindako harrera. Argazkia: JM Deusto


tuarrok ere badugu zeresanik. Alabaina, 1903an lehen edizioa ospaturik, handik gutxira deustuar batek txirrindularitza txapelketa honetan parte harte zuen, 1910ekoan hain zuzen: Bixente Blanco.

1884ko uztailaren 14an Deustuan sortua, Blancok hamaika ezbeharri aurre egin behar izan zion, baita arraskataz aurre egin ere. Aita itsasgizona izanik, haren eredia jarraitzea erabaki zuen eta 13 urte soilik zituela itsasoratu zen sukaldeko laguntzailer gisa. Munduan barrena zebilela ikusi eta frogatu omen zituen lehenengo bizikletak. Baita gustatu ere.

Lehorreratzea erabaki eta gero, fabrika handietan behargin hasi zen. Garaiko lan baldintza gogor eta arriskutsuak tarteko, bi istripu larri izan zituen oinetan: burdin gori zati batek ezker oina zulatu, eta ia erabat txikitu zion; geroago, beste lan istripu batean eskuineko bost behatzak galdu zituen. Hurrezker, "Bixente koxua"-ren ezizena jarri zioten.

Ondoren, beste zenbait lanbidetan ere jardun zen: angulero, Olabeagan batelari... Edozein kasutan, aipatutako istripuak jasan arren, goi mailako txirrindulari izatera

iritsi zen. Bizikleta bat erosteko beste izan zuenean, entrenatzen hasi eta handik gutxira hasi zen lasterketetan. Era horretan, 1906ko Bizkaiko Txapelketan 4. gelditu zen, Sociedad Ciclista Bilbainarekin. Hurrengo urteetan, Blancok bere emaitzak koxka



Bixente Blancori egindako argazkia.

bat hobetzea lortu zuen, 1908 eta 1909ko Espainiako txapelketak irabazita. Hala ere, 1910ean bere kirol ibilbideko erronkarik handienari ekin zion: Frantziako Tourrean parte hartzearena.

Urte hartan, txapelketaren ibilbidean Piri-
nioetako mendate handiak sartu zituzten lehendabizikoz. Horren ondorioz, izena emandako lautik batek bertan behera utzi zuen bere inskripzioa; baina horrek ez zuen “Koxua” kikildu. Horrela, Bilbotik Parisera bizikletaz joan zen, txapelketa hasi aurretik 1000 kilometro eginez. Zoritxarrez, aurreti-azko ibilbide horrek eta ekipajea gainean eraman izanak ez zioten lehen etapa bukatzen utzi. Dena den, abentura frantsesaren amaiera mingotsak ez zion, inolaz ere, lehiatzeko ilusiorik kendu eta 1916ra arte luzatu zuen bere txirrindulari ibilbidea, orotara 19 garaipen bilduz.



VICENTE BLANCO, SEGUNDO PREMIO

Bixente Blancori lasterketa baten osteko argazkia.

Istripu batek zapuztutako ibilbidea

Nolanahi ere, ez gara denboran horren atzera joan behar deustuar txirrindulari profesional batez hitz egiteko. Enara Lopez de Gallastegi, 1997an sortutako deustuarra, hainbat urtez lehiatu izan da kirol honetan modu profesio-
nalean.

“Nire familiak eta nik Burgos aldeko herri txiki batean igarotzen genuen udara. Egiteko beste askorik ez genuenez, asko ibiltzen ginen bizikletan. Gerora, nire anaiak txirrindularitza talde batean izena eman zuen eta txapelketetan parte hartzen hasi zen. Horrela, apurka apurka, ni ere bai lehiatzen hasi nintzen. Gogoan dut infantiletan nengoela, oraindik aldagailua erabiltzen ez nekela irabazi nuela lasterketa bat. Pixkanaka, geroz eta gehiago gustatzen joan zitzaidan heinean, kirolari bezala hazten joan nintzela esango nuke”, adierazi du Gallastegik txirrindularitzan nola hasi zen galdetuta.

Balmasedana izeneko taldearekin hasi zen 14 urte zituela. “Ondoren, hainbat taldetan izan nintzen profesionalelara iritsi aurretik. Gazte kategorian dagoeneko nabarmentzen hasi nintzen, Euskadiko eta Bizkaiko txapelketa irabazi ostean. Hurrengo urtean, 18 urte nituela, Sopelanako talde batek profesional kategoriara salto egiteko aukera eman zidan”. Handik Bizkaia-Durango taldera joan zen. Haiekin bi aldiz parte hartu zuen Italiako Itzulian.

Zoritxarrez, 2020eko urtarrilaren 13an kotxe batek harrapatu zuen entrenamendu batean zehar eta, aitortzen duenez, harrezkero ezin izan zuen lehen zeukan maila berreskuratu. “Mugitu nitzakeen wattioak albo batera utzita, bizikletan nituen sentsazioak eta erosotasuna ez ziren berdinak. Aldaka bi alde desberdinetatik puskatu nuen, orno baten haustura...”. Hala ere, istripuaren ostean lehiatzen jarraitu zuen bolada batez, 2021eko Frantziako Tourrean eta 2021eko Espainiako Itzulian parte hartuz.

“Instripuaz geroztik, entrenamenduetan dena ematean baino minean pentsatzen nuen. Igeritzen nuen ez nuela nire burua lehen bezain beste estutzen. Gainera, momentu horretan justu, nire ikasketekin zerikusia zuen lan eskaintza bat jaso nuen... Azkenean 2022ko martxoan uztea erabaki nuen”.

Hala ere, aitortu digunez, ez du txirrindularitza guztiz alde batera utzi. Gogoz eusten dio bere kirol maitatueneri. Hala ere, momentu honetan lehen egin ezin zituen planak egiteko astiaz gozatura, pozik hartzen du bere bizitzaren fase berria.

Dena ez baita lehia

Orain arte euskaldunen eta txirrindularitzaren arteko loturari buruz hitz egiteko kirol honen goren mailara iritsi diren kasuak aipatu diren arren, argi dago bien arteko harremana edozein motatako txapelketatik haratago doala. Horregatik, bizikleta aisialdirako bitarteko bat soilik ere izan daitekenez, garrantzitsua da gure herriko JM talde zikloturistaz hitz egitea.

1994an sortua, bizikletan ibiltzea gustoko duen edozeineri dago zuzendua. Alberto Infante taldearen fundatzailearen hitzetan, “Garai hartan ni

beste talde zikloturista baten nengoen, Iberduren hain zuzen. Bada, Deustun bizi nintenez, ohartu nintzen herrian jende asko zebilela bere kontura edo talde txikietan bizikletan ibiltzen. Egun baten, erabaki nuen hemen talde bat sortzea, kirola eta aisialdia txirrindularitzaren bitartez uztartzeko. Hainbat kartulina Deustuko zenbait kaletan eskuz prestatutako iragarkiak jarri ostean, JM tabernaren aurrean bizikletan ibiltzera irteteko deialdia egin nuen egun eta ordu zehatz batean. 7 pertsona elkartu ginen lehen egun horretan, eta geroztik ez gara gelditu”.

30 urteko ibilbide luzean zehar, hainbat txirrindulari zalek parte hartu dute antolatzen dituzten irteeretan, gaur egun 70 kide bildu arte. Hala, euririk egiten ez duen egun guztietan goizeko 9:00etan biltzen dira Deustuko parkeko iturrian nahi dutenak; horretaz gain, asteburuetan eta jaiegun berezietan aurreikusitako ibilbideak egiten dituzte.

Azken finean, ikusi dezakegunez, era batera edo bestera, profesionalki edo afizioz, Deustuk lotura nabarmena du txirrindularitzarekin. Era horretan, uztailaren 1etik 3ra bitarte, kirol honen txapelketarik ospetsuenak bere lortatza utziko du gure herriko kaleetan barrena.



Enara Lopez de Gallastegi 2019ko Europako Txapelketan.

An advertisement for the Euskaren Interpretazio Zentro Berria in Bilbao. It features a collage of images showing people interacting with digital displays and exhibits. The text is in bold, orange and black colors.

**EUSKAREN
INTERPRETAZIO
ZENTRO BERRIA
BILBON,**

ZATOZ!
www.euskarenetxea.eus

Euskaren Etxea

EUSKAREN
INTERPRETAZIO
ZENTROA

Bizkaia
EUSKAL
EREMUEN
ERAKUNDA



EUSKAL MITOLOGIA BARNETIK EZAGUTUZ

San Inazio Ikastetxean, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleek, gure kulturaren parte den euskal mitologia ezagutu dute. Eskolan bertan pertsonaia desberdinen artean murgildu dira, eta amaiera borobila emateko deskubrimendu prozesu honi, Izenaduba Basoa ezagutzera joan dira.



Testua eta argazkiak: San Inazio Ikastetxea

Kristautasunaren aurretik, Euskal Herrian hainbat sinesmen, pertsonaia mitiko eta elezahar zeuden, belaunaldiz belaunaldi gugana heldu direnak eta gure kulturaren parte garrantzitsua izaten jarraitzen dutenak. Horregatik, gure ikasleek euskal mitologiaren deskubrimenduan lehenengo urratsak ematea ideia bikaina iruditu zitzaigun ikasturte honi amaiera borobila emateko.

Lehenengo hurbilketa eskolan bertan egin dugu, euskal mitologiako pertsonaia esanguratsuenak aukeratuz: Mari, Galtzagorriak, Lamiak, Basajaun, Tartalo, Maritxu Teilatuko...

Egunero, alegiazko pertsonaia horietakobat deskubritu dute: nor den, nolakoa

den, bere inguruko sinesmenak zeintzuk diren, baita ipuin desberdinak landuz ere. Umeek pertsonaia hori ezagutu dutenean, gelako hormetan ipini dugu bere irudia, eta ikasle bakoitzak bere pertsonaia mitologikoen albuma sortzen joan da ere, pertsonaia desberdinen irudiak eta izenak jasoz. Egunez egun, gure gelak euskal mitologian murgilduz joan dira eta pertsonaia hauen artean bizi izan gara, Tartalorekin beldurtuz baina Eguzkilorearen eraginez babestuak sentituz ere.

Behin pertsonaia mitologiko hauek eta haien istorioak ezagututa, aukera paregabea iruditu zitzaigun Izenaduba Basora joatea ikasturte amaierako txango bezala. Bertan, guretzako ezagunak ziren

eta azkenaldian eskolan gure artean bizi izan ziren pertsonaiak ikusteko aukera izan genuen.




Galtzagorriekin saltoka, dantzaka eta hegaz joan ginen Lamien oinatzen atzetik, hau topatu ezinik basora alde egin zuelako. Akerbeltz beldurgarriari muxua eman genion ipurdian urte betez zorte ona izateko asmoarekin, baina hala ere, ez genuen Lamia topatu eta Napo astoa misioan bidali behar izan zuten, basoetatik eta mendietatik Lamiaren bila.

Anbotoko Mari eta Sugar, bere senarra, eza-gutzeko aukera izan genuen ere, eta serio eta pixka bat haserre zegoenez, eguraldi kaxkarra bidali zigun. Baina gu bisitari ezin hobeak izan ginenez, Mari alaitu zen eta eguna argituz joan zen euri barik disfrutatu ahal izateko.

Jentilak ere ikusi genituen, eta azken Jentilaren bila geundenean, Olentzeroren bila, laberinto batetik galdu egin ginen ere. Goian, Maritxu Teilatuko zegoen guri begira, eta honen laguntzaz, atera ahal izan ginen, eskerrak! Mari Domingi eta nola ez, Olentzero!, gure zain zeuden, eta haiekin hitz egiteko aukera izan genuen, zein onak eta zein zintzoak garen kontatu ahal izateko.



Egun bikaina pasatu genuen gure albumeko pertsonaien artean! Orain ikasturtea amaitu dela, irrikitan gaude ikusteko Anbotoko Marik kasu egingo digun udan eguraldi polita ekarriz, eta gabonak iristen direnean ea Olentzerok gogoratzen duen zein onak izan garen. Bitartean, Akerbeltzek zorte ona eman digunez, lasai ibiliko gara, eta Mungian utziko ditugu Tartalo, Basajaun, Mari, Galtzagorriak, Napo eta koadrila guztia ihes egin duen Lamiaren bila.





DEUSTUA PRENTSAN LEHENENGOZ AGERTU ZENEKOA

Ekainaren 14an hil zen Donostian Jabier Salutregi Mentxaka (1950-2023). Kazetari peto-petoa, Egin egunkariari eman zion bere bizitzaren parte handi bat. Bihoaz hurrengo lerro xume hauek deustuar kazetari, abertzale eta errepresaliatu horren gomutan.



Testua: Hektor Ortega

1998an Espainiak, bere legeak urratuz, Egin egunkaria itxi zuenean, zazpi urte ziren Jabier Salutregi zuzendaria zela. Artean ez zekien betirako izango zela. Batetik, azkena izan zelako; bestetik, ondorengo makineria errepresiboaren zama hamazazpi urtez luzatu zelako. Izan ere, 2015eko azaroan atera zen Burgosko espetxetik, zazpi urte eta erdiko kondena oso-osorik beteta. Salutregi gomutan idatzitakoak dira ondorengo lerroak, kapitain zebilen ontziko eskifaian zerbitzatzeko ohorea izan zuen marinel honen aldetik.

Bilaketa bat eginda, lehenengoz 1795eko almanaka batean aurkitu dugu Deustua prentsan

aitatuta. Almanakak urte osoko informazioa biltzen zuten urtekariak ziren, urte berrian gida gisa erabiltzeko. Alegia, urtean behin argitaratzen zituzten. Mundu osoan prentsaren aurrerakitzat jotzen dituzte. *Almanak mercantil* izeneko Madrilen plazaratu zuten eta, izenak berak iragartzen duen bezala, merkatarientzako informazioa ematea zeukan helburu. Madril, Cadiz, Malaga, Bartzelona, Valentzia, Sevilla, Alacant, Coruña eta Bilboren gaineko jakingarriak zekartzan. Eta Bilbo aldeko industriaren berri ematerakoan, larrua ontzeko lan-tegiak zerrendatzen, Deustuko bat aitatu zuten: "Otra en jurisdiccion de S. Pedro Deusto. Propia de don Pedro de Ardanaz". Hurrengo urteetako

edizioetan ere, horrela agertu zen, gutxienez 1804ra arte.

Euskarazko lehenengo almanaka Bilbon plazaratu zuen Abandoko Jose Paulo Ulibarrik 1815ean, *Egunare eusquerazcoa* izenburupean. Deustutik hurrean, beraz. Hala ere, ez dakigu gure herriaren aitamenik egiten ote zuen, oraindik ez baitago eskuragarri. Urte askotan galdutzat jo izan da, ez baitzen alerik inon agertu. Azken urteotan, berriz, Koldo Ulibarri ikertzaileak baieztatu du ale bat lokalizatu duela Bonaparte printzearen liburuen artean. Itxaron beharko dugu, beraz.

Sasoï hartan bertan (1813-1814) Bilbon *El Bascongado* argitaratzeari ekin zioten, astean birritan, erdara hutsean. Gorde diren aleetan (berrogeta hamarren bat, berriz, ez da Deustua behin ere aitatzen.

Gerrek jarri zuten paperetan

Aitamen hutsaz harago, erdarazko lehenengo albiste apur bat mamitsua 1820an aurkitu dugu, Madrilera *Miscelánea de comercio, política y literatura* egunkarian. Pedro Agustin Etxabarri jeneralaren atxiloketaren berri ematen zuen eta joan den apirilera zenbakian hizpide hartu genuen (zabalago, ikus PREST! 101). Gatibua ontzian ekarri zuten Sestaotik Deustura eta Arauko abadearen etxean eduki zuten Bilbora eraman zuten arte.

Etxabarri jeneralak piztu nahi zuena (eta azkenean piztu, piztu zen) gerra txikerra izan zen. Handiagoa etorri zen hurrengo hamarkadan: lehenengo karlistada (1833-1839). Guda mugimenduei lotuta, orduan sarritan aitatu zuten

Deustua hala gaztelaniaz nola gainerako erdaratan. Frantsesez, adibidez, 1833ko azaroan aurkitu dugu Journal Politique et litteraire de Toulouse egunkarian, “les insurgés forts de 5,000 hommes, composés du 1er bataillon de volontaires carlistes de Bilbao, de ceux d’Alori, Begogna et Deusto, et des brigades de Marquina et Durango”. Alegia, Gipuzkoan zebiltzan karlistak honako hauek ziren: Bilboko lehenengo batailoiko mutilak, Albia (testuan Alori), Begonia eta Deustukoak eta Markina eta Durangoko brigadak.

Ingelesezt, 1833 eta 1834ko aitamenegain, apur bat luzeago agertu zen, adibidez, *Morning Post*en 1835eko uztailaren 7an, Olabeaga zertan den azaltzeko: “This place is situated midway between Bilbao and Portugalete, and forms part of Deusto”. Ikusten denez, ingeles korrespondentsalak Bilbo eta Bilbao artean erdibidea aukeratu zuen: Bilboa!

Euskaraz, berriz, Ulibarriren *Egunare* hura gorabehera, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* astekarietan (1897-1903) agertu ziren Deustuari lotutako lehenengo aitamenak, prentsari dagokionez. Baina lehenengo kronika zabala, zalantza barik, herriko alaba edo seme ezezagun bati zor diogu. Ibarrekolanda izenez sinatu zuen *Euzkadi* egunkarian 1914ko martxoaren 20an plazaratu zuen “Deusto’tik” izeneko idazki mamitsua. Batez ere, herrian euskara galbidean zegoela salatu nahi zuen, joera hori irauli nahian (ikus PREST! 176).

Merkataritza kontuak, gerrak, atxiloketak, euskara... Honaino Deustua eta prentsaren arteko loturen hasierari egindako kiku arina, Jabier Salutregi gomutan.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



UDAL HAUTESKUNDEETAN EAJ GARAIL DEUSTUALDEAN, 2.500 BOTO GALDU ARREN

Testua eta argazkiak: Borja Sarrionandia-Ibarra

Juan Mari Aburtu deustuarrak buru duen EAJ irabazi ditu maiatzaren 28an buruturiko Udal hauteskundeak Deustualdean. 2011n sortu zenetik inoizko emaitzarik onena lortu duen EH Bildu bigarren indarra bilakatu da, PSOEren kaltetan. EAJ eta PSOEren arteko aliantzak gehiengo osoa mantenduko du Barutiko Kontseiluan.

Boto galera nabarmena izan arren, EAJ garraile atera da Deustualdean, beste behin ere. 9.033 bozka lortu du, orain dela lau urte baino 2.478 gutxiago. Botoen % 39,22 eskuratuta (47,83 2019an), alderdi jeltzalea bost auzotan izan da lehen indarra, Deustuko Doneperian (% 42,55), Elorrietan (% 39,60), Ibarrekolandan (% 39,57), San Inazio – Tellaetxen (% 36,83) eta Arangoitin (% 29,53), 2019an bezala. Deustuibarran (% 19,77) bigarrena izan da EH Bildutik oso urrun.


4.300 botoekin EH Bilduk bigarren postua berreskuratu du, botoen % 18,86 eskuratuta (% 15,06 2019an). Koalizio subiranista ezker-tiarrak udal hauteskundeetan inoizko emaitza onena lortu du eta orain dela lau urte baino 408 bozka gehiago lortu du. 2019an bezala Deustuibarran lehen indarra izan da, botoen

% 48,26 lortuta. Elorrietan (% 22,08), San Inazio – Tellaetxen (% 19,92), Deustuko Doneperian (% 18,56) eta Ibarrekolandan (% 18,14) bigarren indarra izan da. Arangoitin, aldiz, hirugarrena izan da PSOEren atzetik, botoen % 16,95 eskuratuta.

Bestalde, hirugarren indarra PSOE bilakatu da 3.601 boto lortuta, botoen % 15,79 (% 15,85 2019an). 2019tik alderatuta, 496 bozka gutxiago eskuratu ditu oraingo honetan. Boto-emaileak guztira 23.033 izan dira Deustun, erroldatutako 39.037 pertsonetatik. Horrek esan nahi du parte-hartzea % 59 izan dela, eta abstentzioa % 41. Parte-hartzea jaitsi egin da Deustun: 2019ko udal eta foru hauteskundeetan % 65 zen.

Balizko udala

Deustuk udalerrria izaten jarraituko balu 21 zinegotziz osatutako Udaltzarrak izango luke. Maiatzaren 28an izandako emaitzen arabera horrela osatuta egongo litzateke Udaltzarrak: EAJ 10 zinegotzi (2019rekin alderatuta bat gutxiago, beraz gehiengo osoa galduko luke); EH Bildu 4 (+1), PSOE 3 (-1); PP 2 (+1); eta Elkarrekin Podemos 2 (=).





INGURUMEN-KUDEAKETA JOMUGAN



Testua eta argazkiak: Axular Arostegi

Joan den martxoaren 7an Deustualdeko zenbait eragilek (Deustuko Familien Elkarte, Arangoitiko Bihotzarren Elkarte, Zubiartean Elkarte eta Deustuko Kanala Elkarte) ekimen bat aurkeztu zuten Bilboko Udaletxean Deustu eta Arangoiti lotzen dituen Kaputxinoen Bideko hegalararen ingurumen-kudeaketarako. Besteak beste, proposamenaren sinatzaileek biodibertsitatearen galera saihesteaz gain, intsektu polinizatzailez eta hegatziz jositako naturgune honen kontserbazioa lortzea dute helburu. Bestalde, Lurgaia, BertokoBasoa eta Ekologistak Martxan bezalako eragileek ere parte hartu dute proposamenaren garapenean. Hala, pasa den ekainaren 10ean, ibilaldi gidatua antolatu zuten Ekologistak Martxaneko gida naturalista baten eskutik, Deustualdeko parke eta berdegune nagusietan barrena, gure hiri-ingurunekeo biodibertsitatearen alderdi asko ezagutu eta gozatzeko.

Biodibertsitatearen galera

Oinezkoentzako igoera berriaren lanen ondorioz lur-eremu honek narriadura jasan zuen arren, 2021eko udaberrian basa-lorez osatutako lorategi botaniko eder baten itxura lortzeraino berreskuratu zen. Seguraski, pandemia garaian mozketa eta sastraka kentze lanak etetzeak egungo flora berreskuratzea ahalbidetu zuen; izan ere, 2021eko otsailetik maiatzera bitartean, 130 landare espezie baino gehiago identifikatu ziren, baita intsektu polinizatzaileentzat oso erakargarriak diren basaloreak ere (zuhaixkarik eta zuhaitzik moztu gabe). Gainera, azken elementu horri esker, hegal osoan tximeletak, erleak, tximeletak, txoriak eta abar ikusi

ahal izan genituen. Edozein kasutan, hobekuntza 2021eko maiatzaren 20an eten zen, sastrakak kentzen hasi ziren unean hain zuzen.

Lurzoruko belar-sastrakak arrasean sarri kendu diren azken bi urte hauetan, lurraren narriadura mailak eta higadura handiak biodibertsitatearen galera handia eragin du, landareen galera esaterako. Izan ere, landare horiek hazien loratzea eta heltzea amaitu ezin izan dutenez, desagertu egin dira, eta, horiekin batera, intsektuentzako, lotutako faunarentzako eta hegaztientzako babesleku naturalak.

Helburuak eta proposamenak

Kaputxinoen Bideko hegalararen ingurumen-kudeaketari dagokionez, hainbat neurri proposatu dituzte zonaldearen biodibertsitatea babesteko: lurra arrasean ez mozte, malda handiko eremuak mozketa ekidin, espezie inbaditzaileen aurka borrokatzea...

“Martxoko proposamen hori aurkeztu ostean, Udalak guk proposatu genituen neurriak betetzen zituela adierazi zigun hasiera batean. Ondoren, hori horrela ez zela erakusten zuten argazki batzuk bidali genion, erantzun idatzi batez gain. Hala, pasa den ekainaren 7an bilera bat egin genuen udaleko ordezkariekin eta adostasun batera iritsi ginen. Beraz, momentu honetatik aurrera, guri Udalak hartu dituen konpromisoak betetzen dituenaren jarraipena egitea dagokigu” adierazi du Jorge Herrerak, Deustuko Familia Elkarten presidentea.

berbetan

SARAI MONTESekin

ERRESPETUZ elkartearen lehendakaria

“Gizarteari ez diot gu ulertzeko eskatze

Sarai Montes Erresperez transexualen defentsa eta integratziorako elkartearen lehendakaria eta sortzaileetako bat da. Elkarteak Ibarrekolandan du egoitza, eta emakume eta gizon transexualez soilik osatuta dago.



Testua: Asier Cobos

Argazkiak: Ecuador Etxea

n, baina bai gu errespetatzea”

Nola eta noiz sortu zen elkarteak?

2007an hasi ginen batzarrak egiten eta, legez, 2008an eratu genuen elkarteak. Ni emakume transexuala naiz. Ibarrekolandako sexologo batekin egon nintzen kontsultan. Gutxi gorabehera nire kasua bideratuta nuen, nire antzeko egoeran zegoen jendea lagundu nahi nuela esan nion sexologoari. Munduan arraro sentitzen zaren egoera bat bizi duzunean, eta nik bizi izan dut, ezin duzula inorekin hitz egin sentitzen duzu. Orduan, sexologoak Ares eta Jon aurkeztu zizkidan, gaur egun elkarteko idazkaria eta lehendakariordea. Momentu horretan jaio zen elkarteak. Ez genuen legerik sortzeko asmoa, hori aurrerago iritsi zen. Gure funtzioa jendeari laguntzea da, hori da Errespetuz-en oinarria.

Zuen lan-ibilbidean zehar, zer aldaketa nabaritu dituzue gizarteak?

Ni, pertsonalki, munduak ezertan ulertzen ez gintuela ikustetik (are gehiago, entzun ere ez gintuela ikustetik) gurasoek ere gaiari buruz dihardutela ikustera. Transexualitateaz mintzo ginenean inork ez zigun kasurik egiten. Baina gurasoak haurrekin gaiari buruz hitz egiten hasi direnean, hor bai aldatu dela kontua. Gizarteak pentsamolde aldaketa garrantzitsua egon da. Bestalde, beti egon gara lotuta gizartearen alde sozialarekin eta giza eskubideen aldekoekin; ezkerrekin, hain zuzen ere. LGTB mundua, oro har. Bai-

na azken hauteskunde orokorretatik, egoera hori hautsi egin da erabat. Noiztik hasi da feminismoa esaten pertsona transexualak pederastak edo bortxatzaileak garela? Hori erokeria hutsa da. Iritzi horiek hesi handia izan dira guretzat.

Orduan, aldaketarik handiena hezkuntzan ikusten duzue?

Transexualitateak iruditeria kolektiboan duen arazo nagusia ezagutzarik eza edo ezagutza okerrak izatea da. Transexualak ez ezagutzea eta transexualei buruz hitz egiten entzutea da ohikoena. Eta, zer da entzuten dena? Telebistak erakusten duena; hau da, prostituzioa, farandula, etab. Nik estereotipo hori jaso badut, zer ez du sinetsiko gizarteak! Orduan, Errespetuz-en, hasieratik konturatu ginen landu beharreko zutabe indartsuenetako bat hezkuntza zela. Sarritan, toki askotara joaten garenean, jendeak gutaz dituen estereotipoak hautsi egiten ditugula gertatzen zaigu, hitzik ere esan gabe. Aldiro esaten digute, harrিতa, pertsona normalak garela. Noski! Zer espero zenuten ba?

Oro har, elkarteak gizarteak dagoen behar batetik sortzen dira. Zuen kasuan, transexualitatearen gaia jorratuz, zerk bultzatu zintuzten Errespetuz sortzera?

Errespetuz ez zen gizarteak zuen premia batetik sortu, pertsona transexualek genuen behar batetik baizik. Ez genuen lekurik aur-

“Sarritan, toki askotara joaten garenean, jendeak gutaz dituen estereotipoak hautsi egiten ditugula gertatzen zaigu, hitzik ere esan gabe”

▷ ▷ **SAKONEAN****“Transexualei buruzko astakeriak esaten dituzunean, jakina, ez zara feminista”**

Gainera, transexualitateari eta feminismoari buruzko jardunaldi irekiak ere egin dituzue.

Bai, jardunaldiak horrela bideratu genituen, denbora asko eman genuelako feminismoaren izenean pertsona transexualei buruzko astakeriak entzuten. Transexualei buruzko astakeriak esaten dituzunean, jakina, ez zara feminista. Faxismoa eta matxismoa izan dira historikoki ni emakumea ez naizela esan dutenak. Beraz, aukeratu non kokatu nahi duzun zure burua, baina feminista ez zara. Egia da diskurtso horiek azkenean eragina izaten dutela eta feminismoa transexualen aurka dagoela ematen du. Errealitateatik urrun, hori ez da egia. Horregatik, jardunaldi horiek egitea erabaki genuen, bi adar horiek bateratzen saiatuz.

Horrekin batera, Berdindu-ren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren Euskal LGTBI+ Behatokia osatzen duten elkarteetako bat zarete.

Berdindu Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu publikoa da. Pandemiara arte modu zati-tuan kudeatzen zena: Berdindu Eskola, Berdindu Ibiltaria... Baina dena gauza bera zen. Dibisio horietako bakoitza elkarte batek kudeatzen zuen. Baina, Gobernuak eredia aldatzea eta bateratzea erabaki zuen. Beraz, bertan lan egiten genuen erakundeetatik, bakar batek ere ez zuen lan guzti hori bere gain hartzeko ahalmenik. Horrenbestez, bat egitea erabaki genuen, federazio bat sortuz. Gure kasuan, 'Anitz' sortuz. Hori izan zen gobernu-lehiaketa publikora aurkeztu zena. Hortik kudeatzen dugu Berdindu. Legez, lehen elkarteek kudeatzen zutena, eta orain federazio horretatik.



kitzen gure egoera bizi izan zuen norbaitekin hitz egiteko. Hori ezin genuen aurkitu, ez medikuntza arloan ezta LGTB elkartetan ere. Garaian, LGTB elkarte bat sortzea pentsatu banuen ere... Zer egingo nuen nik hor ez banaiz ez gay ez lesbiana? Gisa horretako elkartetara laguntza eske joan den jendea ezagutzen dut. Bertan, gizon transexuala zela esan eta haiek honako hau erantzutea: “Hartu gay eta lesbianen liburu bat eta ahaztu diozuna”.

Hainbesteko bereizketa dago LGTB kolektiboaren eta pertsona transexualen artean?

Kutxa bakar batean sartzen gaituzte, baina oso gauza desberdinak gara. Ez du zerikusirik. Gauza bat da orientazioarekin zerikusia duena, gustuko dudana eta gustuko ez dudana, eta beste gauza bat identitatearekin zerikusia duena. Honek ez du esan nahi zer gustatzen zaidan, baizik eta nor naizen.

Gutziz ezberdinak dira, eta jendeak izugarri nahasten ditu kontzeptuak.

Gaur egun, nola ikusten duzue transexualen kolektiboaren egoera Deustun?

Nire pertzepzio soziala, alde batetik, positiboranzko joera du. Baina alde negatiboa ere badu. Estatu osoko lekurik onenean bizi gara gurea bezalako egoera baterako. Beste leku batzuetako ekintzaileek esan izan didate hemen daukaguna amets bat bezalakoa dela. Pentsaezina baita Hezkuntza arloan hitzaldiak ematen saiatzea. Baina, arlo sozialari dagokionez, atzerapausoa ikusi dugu. Hori ustezko ezkerren diskurtsoetatik etorri da, gehienbat. Gainera, gurekin zerikusirik ez duen gerra baten albo-kalteak izan dira. Alde batetik, matxismo-mailan atzera egiten ari gara, eta homofobia eta LGTBIfobia matxismoaren alabak dira. Orduan, matxismoak gora egiten badu, gure kolektiboaren kontrako gorrotoak ere gora egiten du. Horri ustezko feminismotik sortu diren gorroto-diskurtsoekin zerikusia duen guztia gehitzen zaio. Transexualeri buruz modu negatiboan esaten den guztiari 'transexuala' hitza kentzen badiogu eta beste kolektibo bat izendatzen badugu, orduan bai jendea asaldatu egiten da. Gure kolektiboarekin, aldiz, ez.

Zein da zuen helburua etorkizunari begira?

Gure lana maila sozialean hezkuntzara bideratu izan dugu beti. Jendeak ulertzea transexualak beste egoera batean jai garen pertsona normalak garela, eta horri irtenbide bat eman behar diogula. Hori ulertzen ez duen gizarte batean bizi gara. Hezkuntza katoliko baten menpean heziak izan gara 2.000 urte baino gehiagoz, eta oso zaila da hori aldatzea. Etorkizunean, mundu guztiak argi izango du genital anbiguoak edo bulba duten gizonak ere badaudela. Baina kostatuko zaigu.

Esan liteke zuen borroka iraupen-lasterketa bat dela? Hau da, epe luzerako borroka bat, etorkizunerako oinarriak ezarriko dituen?

Noski, ez dago besterik. 2.000 urte baino

gehiago daramatzen edozer ideario kolektibotik kentzeko estrategia epe luzerakoa izan behar da. Denontzako borroka da hau. Baina nekagarri samarra ere bada. Azken finean, zientziaz ari bagara, zergatik naiz ni alderdi horretaz hitz egiten duen bakarra?

Errespetuz elkartetik, zer eskatuko zenioke hezkuntzari eta gizarteari?

Hezkuntzari liburu inklusiboak egiteko eskatuko nioke. Gu ikastetxetara transexualitateaz hitz egitera joaten gara, baina ikastaroak urtebete irauten du. Gure lanak jarraipenik ez badu ez du izan behar lukeen eragina eraginik izango. Zeharkakoa izan behar du. Liburu askotako enuntziatuak aldatzea bezain erraza da. Bestalde, gizarteari errespetua eskatuko nioke. Ez dut ulertzeko eskatzen, baina bai gu errespetatzea. Izan ere, hortik dator Errespetuz izena. Errespetutik, guztiok dugu lekua gizartean. Horrekin batera, guk bizi izan dugun egoeran dauden pertsonen sentitzen dutena azaleratzea gomendatuko nioke. Bakoitzak bere bidea egin behar du, bestela ezin duzu jakin bide hori egokia edo okerra den. Mugitu zaitez! Esaiozu gizarteari zer eta nor zaren! Denborak esango dizu aukeratutako bidea zurea den edo ez. Baina ez zaitez paralizatuta bizi, ezta armairu baten barruan. Egoera horretan jarraitzeak zurekin amaituko du.

“Etorkizunean, mundu guztiak argi izango du genital anbiguoak edo bulba duten gizonak ere badaudela”



KIROLA

Dagoeneko abian da 2023ko traineru denboraldia

Urtero bezala, udarekin batera datoz traineru estropadak, amaitu dira azaroan hasitako entrenamendu garaiak. Maiatzean eta ekaina hasieran denboraldiurreko azken lehiaketak izan ondoren, joan den ekainaren 18an hasi zen aurtego ARC 1-eko edizioa Pasai San Pedron. Bertan, Deustu Arraun Taldearen gizonetako traineruak parte hartu zuen 10. postua eskuratuz. Nesken taldeak ere dagoeneko hasi udara honetako txapelketen bolada ETE ligan. Egun eta toki berean, deustuarrek 3. postua lortu zuten. Euskolabel eta Euskotren ligei dagokionez, biak uztailaren lehendabiziko asteburuan hasiko dira Galiziako uretan.

JAI HERRIKOIAK

Gizon bat hil da Ibarrekolandako jaietan

Aurtengo Ibarrekolandako jaietan 49 urteko gizon bat hil da, botila baten kolpearean eraginez. Erasoagatik, 22 urteko gazte bat kartzelan dago, auzoko jaietako bigarren asteburuan izandako gertakariaren uestezko egilea delakoan. Ibarrekolandako kale nagusira bertaraturako ertzainek konorterik gabe aurkitu zuten gizona eta ospitalera eraman zuten. Hala ere, bi egunen buruan hil zen. Aurrekariak dituen gaztea Bilboko guardiako epaitegiaren epaileak espetxeratzeko agindua eman zuen. Honen bitartez, Ibarrekolandako Jai Batzordeak gertakaria salatu eta elkartasuna adierazi die auzokidearen familiari eta lagunei.

URTEURRENAK

25. urteurrena ospatu du Ibarreko futbol taldeak


Ibarreko futbol taldeak bere 25. urteurrena ospatu du ekaineko azken-aurreko asteburuan. Horretarako, ekintzaz beteriko egun berezia antolatu zuten taldeko zuzendariak. Goizeko 9etan, entrenatzaileek eta jokalariek gazteek zelai osoan zehar egindako ginkanan parte hartu zuten. Ondoren, taldeko presidente izandakoek omenaldi berezia jaso zuten, garaian egindako lana omenduz. Jarraian, taldeko jokalariek ohiek txapelketa txiki bat antolatu zuten. Horretan, lau talde parte hartu zuten: Sestao, Barakaldo eta Ibarrekok aurkeztutako bi talde. Amaitzeko, Levante plazan elkarrekin bazkalduz, festa giroan borobildu zuten egun ezin hobea parte hartzaile guztiek.




KAZETARITZA

Euskal kazetaritzari lotutako bizitza bat

Jabier Salutregi Mentxaka, "Egin" egunkariko azkeneko zuzendari izandako kazetari deustuarra joan den ekainaren 14an zendu zen. 1950ean Deustun sortua, Salutregik 1977an "Egin" egunkariaren sorreran parte hartu zuen. Bertan, 1993tik zuzendaritza lanetan jardun zen, 18/98 auziaren baitan Entzutegi Nazionalak 1998an itxi zuen arte, ETArekin bitarteko izatea leporatuta. Hala, 2007ko abenduan 12 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. 2009an, Auzitegi Gorenak egunkariaren jardueren legez kontrako izaera bertan behera utzi arren, deustuarrek 2015ra arteko espetxe zigorra bete zuen, tesi berdina egotzita. Azken asteetan, hamaika pertsonak Salutregiren familiarentzako babes-mezuak partekatu dituzte sare sozialen bitartez.





Urtea: 1930

Txema Luzuriaga (Begoña Bidartek utzitako argazkia)

La Riberako langileek egindako eskultura

La Riberako langileek egindako eskultura, Olabeagako Euskaldunan. Enpresa hori Euskalduna on-tziolakoa zen, eta Elorrietan (edo Olabeagan) itsasontziak eraikitzeaz bestelako beste ekoizpen-zentro bat zuen. Eustaquio Legorburu kontratista bilbotarrak egin zuen obra, eta Jose Murga Balmasedako arkitektoak zuzendu zuen. Estatuaren hustuketa Euskaldunako tailerretan egin zen.


Monumentuak Mutriku eta Escobedo harrobietako harrizko 425 metro kubiko ditu. Guztira, 2.350 tonako pisua du. Bere garaiera 40 metrokoa da, eta monumentua 7 metrokoa. Brontzez egina dago, urre-kolorez urreztatua. 1927ko ekainaren 26an inauguratu zen. Belgikako plaza ederrean dago. Handik abiatzen zen Alfontso XIII.aren Etorbide Handia (gaur egun Kale Nagusia) eta Aliatuen Etorbidean amaitzen zen (gaur egun Sabino Arana).

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
billbokoaldizkariak@gmail.com

△ ∇ △ ∇ △
TATTOO STUDIO


Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

Optica
Avenda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com 


Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4


Yoki Berrri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintoreria
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua 
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play  App Store
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA BFE

 Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltea
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Nola egiten diozu aurre uda garaiko beroari?



**Mikel
Arangoiti**

Gerizpean dagoen taberna bat bilatzen saiatzen naiz. Bertan, patxaran hotz batekin hidratatzeko.



**Ariane
San Inazio**

Nik goizetan kirola egiteko aprobeztatzen dut. Ondoren, hondartzara joaten naiz uretan erlaxatzera



**Jon Ander
Deustu**

Udan lan egiten dudan bitartean ur botila bat daramat gainean beti, eta kirola egiteko eguerdiko ordu txarrenak saihesten ditut. Gainera, hondartzara igeri egitera eta erlaxatzera noa.



**Olatz
Deustu**

Aurpegian krema botatzen dut, bainujantzia jantzi eta bizikletan hondartzara noa. Ahalik eta gehien bainatzen naiz uretan eta etxera joaten naiz entsalada bazkaltzera. Gero, berriro hondartzara.



**Jone
Deustu**

Oso txarto. Gogorroto du beroa. Gainera ezin dut hondartzako area pill-pilean dagoen ezta gerturatu ere egin.



**Asier
Deustu**

Ahal dudan guztietan hondartzara joaten saiatzen naiz. Bainu bat hartu eta udako beroa desagertzen dela dirudi.



harkua bete

PUTA ZIKINAK IRAKURLEEN TXOKOAN

Testua eta argazkiak: Idoia Ugalde

Badira gizartean azkura eragiten duten gaiak, aulkian artea mugiarazten gaituztenak. Gai hauen artean prostituzioa dagoela deritzogu, eta honen froga da mintzagai dugun liburuak Baionan martxoan jasandako erasoak. Baina gai konplexuen inguruko isiltasuna ez dator soilik erasoekiko beldurragatik, askotan, norberaren begirada kanpo-begirada denaren kontzientziak, zaila izan zaigu zalantza edo gogoetak plazaratzea, gaiaren inguruan nahikoa ez dakienaren umilatsunaz batetik, gizartean deseroso sentitzen den kontu bat mahaigaineratzearen beldurrez bestetik.

Gurean, umiltasuna mantendu baina beldurra astintzeko, gai deseroso, ziurgabe horiei lekua egin behar diegulakoan gaude, horretarako edukia landuz. Euskal Herrian badugu, beste askoren artean, pil-pilean dauden eztabaidak nazioartetik gurera ekartzeko lana ederki egiten duen argitaletxea, Iruñeako Katakarak. Honakoan, Puta zikinak lanak ireki digu atea: 2018an Juno Mac eta Molly Smith irlandarrek ingelesez argitaratua, 2022an euskaratu du Amaia Astobiza Uriartek, eta eztabaida piztu eta hautsak harrotu ditu han-hemen. PARE talde feminista eta Berbaizu euskara elkartetik ez dugu galdu nahi izan euskaraz feminismoaren (eta, hortaz, gizartearen) erdigunean dagoen auziari buruz hitz egiteko abagunea.

Amaia Astobizak azaldu bezala, liburu honen autoreek lan eskubideak prostituzioaren arloan txertatzea dute helburu nagusi; sexu, lan eta prostituzioak gizartean duten karga morala alde batera utzi eta langileen bizi-baldintzak hobetze aldera eman beharreko pausoak (eta eman ez-beharrekoak) argituz. Itzultzailearen azalpenaren ondotik, liburuaren mamiari heldu genion Ramon y Cajaleko 42.ean bildu ginen taldetxoan: testuaren gogortasuna, moraltasunetik urruntzeko saiakera eta zailtasuna, iruditeria kolektiboan prostituzio edo prostituta hitzak

entzutean gure baitan oihartzun egiten duten iritzi eta beldurrak, pertsonentzako migrazio seguruen aldarria, prostituzioaren inguruan guztiok lanketa egitearen eta, hurrengo baterako, prostitutekin eurekin mintzatzearen beharra, besteak beste. Hauetaz eta beste hainbat kontutaz aritu ginen Müllerren babespean, hainbat desadostasun eta hari-mutur aske bidean utzita, noiz jaso zain.

Eztabaida interesgarri honekin agurtzen dugu 2023-24 ikasturtea, gurera Joseba Sarrionandia, Nerea Ibarzabal, Asisko Urmeneta eta Amaia Astobiza gerturatu dira azken hilabeteetan. Irakurleen txokoa espazio aberasgarria izatea dugu helburu, adin eta interes ezberdinetako jendea bilduko dituen, horregatik proposamen anitzak ditugu datorren ikasturterako ere: irailaren 20an Arangoitiko auzokide den Iñigo Martinez Peñarekin mintzatu gara Pantailen garaipenaz, eta urriaren 10erako euskal poeta gazteen mahai-ingurua antolatuko dugu, hasteko.

Datorren urtean ere, liburu artean arituko gara, emozioez, historiaz, literaturaz, familiaz, bidegabekeriez, eskubideez hitz egiten jarraituko dugu, zuekin.





Gure ikasleen ahotan

“Formazio konbentzionaletik urrundu nahi nuen eta mundu errealetik zuzen-zuzenean ikasi”

*Paula Fernandez bilbotarra
Lidergo Ekintzailea eta
Berrikuntza (LEINN)
graduaren 2. maila ikasten ari
da Mondragon Unibertsitatean.*



Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua ikastea?

ADE eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean urtebete eman ondoren, konturatu nintzen ez nuela bide horretatik jarraitu nahi. Pertsona sortzaile eta praktikoa naiz, eta LEINN aurretik ezagutzen nuenez, aldatzea erabaki nuen; egia da aldatzeak batzuetan asko kostatzen duela, baina nire kasuan onerako izan da. Formazio konbentzionaletik urrundu nahi nuen eta mundu errealetik zuzen-zuzenean ikasi.

Nola baloratzen duzu LEINNen izan duzun esperientzia?

Modu positiboan baloratzen dut; izan ere, LEINNen hasi nintzenetik, asko ikasi dut, ez bakarrik profesionalki, baita arlo pertsonalean ere.

Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitateetik?

Mondragon Unibertsitateetik gehien baloratzen dudana Learning by doing eta Learning from reality leloen bidez laburtzen da; hau da, ikasteko metodologia, eta Unibertsitatea osatzen duten profesionalen giza kalitatea dira.

Hasiera-hasieratik enpresa bat sortzen duzue LEINN graduari. Nola egiten da hori?

Erabiltzen dugun forma juridikoa Junior Enpresa Elkarte da, lege eta finantza aholkularien laguntzarekin sortzen dena, eta beste enpresa eta/edo partikular batzuekin modu legal eta fiskalean jarduteko aukera ematen diguna.

Nolako proiektuak garatu dituzue zuen enpresarekin/taldearekin LEINNen barruan?

Tabia nire lantaldearekin, proiektu ugari garatu ditugu, eta oso esparru desberdinetakoak: ostalaritza, aholkularitza, ekitaldien sorrera eta jertseen pertsonalizazioa, besteak beste. Azkenaldi honetan Zetta Agentzia proiektuarekin ari naiz, eta Z Belaunaldia hainbat erakunderekin konektatzea du helburu.

Zer iruditzen zaizkizu learning journey-ak edo atzerrirako bidaiaak?

Atzerrirako bidaiaak garapen pertsonal eta profesionalerako aukera paregabea dira; izan ere, turismotik harago, helmuga bakoitzeko enpresa-ekosistemak ezagutzeko eta tokiko jendearekin konektatzeko aukera ere badugu. Nire kasuan, Berlinera eta Costa Ricara joateko aukera izan dut. Eta datorren urteko urtarrilean Indiara eta Koreara joango gara.

Etorkizunari dagokionez, zein dira zure planak? Nola ikusten duzu zeure burua?

Graduari ekin nionean argi neukan etorkizunean ez nuela ekintzailea izan nahi, baina orain ez dut erabat bazterten. Oraindik lasterketaren erdialdean nago, eta uste dut hau oraindik asko alda daitekeela. Baina LEINNi esker deskubritu dut zein sektoretan aritu nahiko nukeen, eta, besteak beste, komunikazio, lidergo, talde jokalaria eta ekintzailetza gaitasunak sustatu ditut.

>> ANTZERKIA

PABELLON 6EK 'EL VIAJE A NINGUNA PARTE' ANTZEZLANAREKIN HASIKO DU 13. DENBORALDIA

Antzerkiaren 2023-2024 denboraldia abuztuaren 25ean hasiko da, 'El viaje a ninguna parte' antzezlanarekin, Aste Nagusiaren egun handian. Fernando Fernan Gomezen obra ezaguna Arriaga Antzokiak ekoitzi du.

Lanaren emanaldia abuztuaren 25etik irailaren 17ra izango da. Horren emanaldiak bukatu ondoren, 'Un viaje a la luna' eskainiko du Pabellon 6ek, irailaren 23an eta 24an. Sarrerak eskuragarri daude jada www.pabellon6.org webgunean.

Testua: Asier Cobos

Argazkiak: Pabellon 6

Pandemia garaiko estreinaldia

'El viaje a ninguna parte' Arriaga Antzokiaren eta Madrilgo Fernan Gomez Antzokiaren ekoizpen bat izan zen, 2021eko pandemiaren erdian estreinatutakoa. Ikuskizuna bi astez egon zen Bilboko antzokian, emanaldiak betez. Horrexegatik, hain zuzen ere, Madrilen ere estreinatu zuten antzezlan. Baina COVIDaren pandemiak hainbeste eragin zion antzerkigintzari, ezen antzoki gehienak beldur ziren emanaldiak programatzeko momentuan. Izan ere, ikusleak sarrerak itzultzen ari ziren. Beraz, bira garestia izan zen, estreinatu zenetik hiru urtez luzatu zena.

Komikoei omenaldia

Obra, jatorriz, Fernando Fernan Gomezen irratinobela bat zen, 80ko hamarkadan idatzitakoa. Antzerki bertsioari dagokionez, eleberriko elkarriketak hitzez hitz jaso eta antzerkian islatzen



Una producción del Teatro Arriaga
TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

EL VIAJE A NINGUNA PARTE
abuztuaren 25etik irailaren 17ra

Egilea
FERNANDO FERNÁN GÓMEZ

Zuzendaritza
RAMÓN BAREA

Antzezleak
PATXO TELLERIA, MIKEL LOSADA, RAMÓN BAREA, ITZIAR LAZKANO, IRENE BAU, OLATZ GANBOA, DIEGO PÉREZ, ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS.

www.pabellon6.org



“Aktore familia bat”

Ramon Barea ‘El viaje a ninguna parte’ antzezlanaren zuzendariaren esanetan, aktore taldeak zintzo betetzen du antzezlanak islatu nahi duena: “Iruzkin kritikoeak antzezlanean erretratatzan den moduko konpainia bat benetan osatzen genuela adierazten zuten. Konpainia ibiltari bat, aktore familia moduko bat”.

Izan ere, antzezlanak kategoriako aktore talde du; Mikel Losada, Itziar Lazkano, Patxo Telleria eta Olatz Ganboa bezalako aktore ospetsuekin, batik bat. Zuzendariaren arabera, aktoreak aukeratzea ez zen lan zaila izan duten erlazio eta konexio onagatik: “Hain gaude sintonian, baita teknikoki ere, non konpainia karismatiko oso berezi baten sentsazioa sortzen baita”.

ditu. ‘El viaje a ninguna parte’ komiko ibiltariak ditu oinarri, hizkuntzaren komiko ibiltariak. Komikoei omenaldi argia, funtsean antzerki munduan aritzen direnen segurtasun eza omentzen duena. Galtzaileei omenaldia, arrakasta etengabe bilatzen saiatzen direnei. Eguneroko bizitzaren aldeko borrokari omenaldia, batik bat.

Antzezlanak erretrataturako pertsonaia guztiak izatera berezia dute, horrek gertutasuna sentitzen sortzen dio ikusleari. Carlitos ikastunetik, Galvar jauna eta bere semera. Pertsonaia horiek indarra hartzen dute aktoreek bere garaian Fernan Gomezek deskribaturakoak birsortzen dituzten moduagatik.

‘Un viaje a la luna’

Aurkeztutako antzezlanaren ondoren, ‘Un viaje a la luna’ estreinatuko da. Antzezlan hau irailaren 23an eta 24an izango da Pabellon 6en. Hain zuzen ere, ‘La Luna’ Fernando Fernan Gomezek eta bere emazte Emma Cohenek zuten etxearen izena da. Hala, haien biloba Elena Llanos da nolabait bere aitoren idazkien ugaritasuna antolatzen ari dena eta ikuskizun berri hau sortu duena. Fernan Gomezaren grabazioek, irudiek eta objektuek osatzen dute lana. Hurbilketa horrek pertsonaiarekiko gertutasuna islatzea du helburu. Elena Llanosek introspektzio-jokoa egiten baitu horrek guztiarekin.



barkua bete herba

>>NUTRIZIOA

ONGI ETORRI UDA ETA LASTER ARTE ERRUTINA?

Testua: Ainhoa Maiztegi

Ongi etorria eman diogu udari eta, honekin bat, urteko urtarorik maitatuenetarikoa bati. Nahiz eta udako hilabete hauek askoren faboritoen artean egon, beste askoren kezka izaten dira ere bai. Izan ere, pertsona askorentzat, errutina haustea, urtean zehar landutako ohitura osasungarriari agur esateko unea dakar. Baina, aurreko aleetan landu izan dugun “zuri edo beltz” edota “guztizko edo ezerezko” pentsamenduaren hausturarekin jarraituz, zure udaz disfrutatzeke gomendioekin gatzoz.

Ezer baino lehen, inportantea izango da zure burua testuinguruan jartzea. Hau da, zernolako uda bizitzeko asmoa izango duzun batzea. Horretarako, egutegi batean izango dituzun ekitaldi sozialak (barkari eta afariak, oporrak, bidaiak, herriko jaiak, jaialdiak, ...) apuntatzea gomendatzen dizut. Era honetan, eta behin zure testuingurua izango dena finkatuz, zure udako estrategia osasungarria diseinatzeari ekin ahal izango diozu. Bestalde, oso interesgarria izango da pasa den urteari begiradaxoa bota eta zer bizi-estilo jarraitu zenuen jasotzea. Askok aldatu zen zure egunerokotasuna urteko beste hilabeteekin alderatuz? Nola eragin zizuten hilabete hauek?

Atzera begirada honek udako egoera edota udan zehar bizitako aldaketei zein eratan aurre egiteko modua daukazu identifikatzeko lagunduko dizu. Informazio honekin

zure pasa den udako jokabideak mantendu edo moldatu nahi dituzun jakiteko balioko dizu ere bai. Eta, hauek aldatzeko asmoa izatekotan, zein erramintak erabiliko dituzun aukeratzeko lagunduko dizu; adibidez; iaz hondartzatik heltzerakoan edozein gauza hartzen bazenuen afaltzeko, alperkerria ematen zizulako afaria prestatzea... Uda honetan, hozkailu eta despentsan 5 minututan prestatzen den afaria sukaldatzeko osagaiak edukitzea zure ohiturak mantentzeko lagungarri suertatuko zaizu.

Disfrutatu beste tokietako gastronomiaz, aukeratu ura edari base gisa, ez ahaztu barazkien presentzia protagonista, aukeratu sasoiako eta tokiko frutak, saiatu ordugegi erregularrak mantentzen eta ezberdindu egunerokotasuneko eta ospakizun otorduen osagaiak. Azken hauen kasuan, gozatu malgutasunaz. Hau da, saiatu eguneko, asteko edo hilabeteko atalik handienez zehar orain arte jarraitu duzun errutina osasungarriak eta elikadura ohiturak mantentzen.

Ariketa fisikoari dagokionez; hondartzan zaudela, freskatzeko helburuarekin uretara sartzean, aprobetxatu tartetxo bat igeri egiteko. Halaber, ur ertzetik paseatzeak gorputza mugituarazteaz gain, freskatzeko lagunduko dizu, bertatik haizea gehiago mugitzen baita.

Hondartza askotan paddle surf, surf edota piraguak alokatzeko aukera izaten dute ere



harkua bete herba


bai. Eta hauta ezin hobeak dira jarduera fisikoa egiteko. Beste hainbatetan, kalistenia edo an- tzerako ariketak lantzeko eremuak izaten dira. Hurbildu eta eskegi hondartzara heldu bezain pronto edota iluntzean, azken honetan tenpe- ratura dexente bajatuko da eta.

Eta noski, ez ahaztu hondartzarako “starter pack”-aren atalik garrantzitsuenetariko bat: palak. Itxasbeherak uzten duen hondar laua aprobetxatu Bizkaia frontoia ur ertzera lekual- datzeko.

Eta bukatzeko; deskantsatu, deskonektatu, eman denbora luzea naturan, ikasi errezeta fresko berriak, mugitu mendira edota kostal- dera, asko irakurri, lagunekin egon, baita zeure buruarekin bakardadean eta DISFRUTATU!



Ainhoa Maiztegi

 @ainhoamaiztegi.nutricion



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



PATRI MUÑOZ

Script eta kulturzalea

ZINEMA ETA AUTORETZA

Zinema arte berezia da eta berezia da arrazoi ezberdinengatik. Lehenik eta behin pelikula bat egitea talde lana delako. Egia da, beste disziplina batzuetan ere egilearengandik haratago badaudela artelana ekoizten duten pertsonak, eskultura mota batzuk adibidez. Baina lan horiek teknikoak izan ohi dira. Pelikula batean aldiz, talde lana sortze prozesuaren hasiera hasieratik hasten da eta lan talde bakoitzak ezinbesteko ekarpena egiten dio pelikulari.

Egia da zuzendariak pelikularen osotasunari erreparatzen diola eta bere ikuspegia gailenduko dena izango dela. Baina egia da ere, oro har, lan talde bakoitzeko kideek, Arte lantaldeak adibidez, gai zehatz horri buruz zuzendariak berak baino gehiago jakin ohi dutela, kasu honetan artea, dekorazioa,....ea. Beraz kide horien ekarpenak ezinbestekoak dira sortzen den pelikula sortzeko. Hau lantalde guztiekin gertatzen da eta honek bi ondorio ditu. Alde batetik, pelikula baten autoretzari buruz hitz egiten badugu zuzendariarengan mugatzea motza geratzen dela. Bestalde, errepresentazioari buruz eta honen garrantziaz hitz egitean lan talde guztien kideengan jarri behar genukeela arreta. Ez soilik zuzentzen duen pertsona horrengan.

Ospatzekoa da zinema zuzendari profil gero eta anitzagoak ikustea eta hauek sortzen dituzten iruditegia ere anitzagoak izatea baina ezin begibistatik galdu pelikula baten atzean dauden lan taldeak eta hauek betetzen dituzten kideen profilak ere.

Doinua: Gure herru ttiki hau da



ANDER ANAKABE LEKUE

Elorri bertso-eskolako kidea

Ongi etorria eman
Diogu jada udari
Kurtsoa amaitzea bera
Baitaukate askok sari
Zenbat ikasle egon dira
Klase bakoitzean adi?
Eta zenbat izan dira
Aitzakien gidoilari?
Erruak erraz botata
Zaila den azterketari
Beti bardin gertatzen da
Belaunaldiz belaunaldi
Norbera balitz norbere
Ekintzaren ikuskari
Jarri behar genioke
Nota geure buruari

Berdin du ikaslearen
Adin, helburu ta gama
Euskaltegia edo
DBH-koa izana
Kurtsoan ikasten dena
Uztailak arin darama
Irailean bat-batean
Memoriak du orbana
Euskal eremutik kanpo
Joaten da jende andana
Izan udaleku edo
Jai herrikoia ren plana
Aisia euskaraz eskaintzen
Badago nahikoa lana
2 hilez euskararekin
Galtzen baita harremana



Bilboko kaleetan gero eta gehiago entzuten da

ZER DA?

B Bilbao

E S K A



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza. 20. urteurrenaren lamina jasoko duzue opari.

Informazio gehiago: prestsharpide@gmail.com



EUSKARARA HURBILTZEKO HARRERA IKASTAROA

LIMBA BASCA CURSURI PENTRU I MIGRANTI
CURSO DE EUSKARA PARA MIGRANTES

COURS D'EUSKARA POUR DES MIGRANTES

دورة في لغة ؤشكيري للأجانب



EMAN IZENA! MATRICÚLATE!

Telefonoa: 944 471 042

Helbide elektronikoa: berbaizuko@gmail.com

Helbidea: Ramon y Cajal 42, behea edo
Ramon y Cajal 8, behea (09:30-13:30)

60 ORDU
22€
60 HORAS

